


ARGAZKILARITZA DIGITALAREN TEORIA ETA PRAKTIKA



ARGAZKILARITZA DIGITALA, TEORIA ETA PRAKTIKA proiektuaz

Irudi digitalet ikusteko eta begiratzeko modu berria proposatzen digute. Argazki soilak izatetik irudi berriak eratzeko abiapuntu bilakatu dira. Muntaiak eta eraldaketa batzuk direla medio, irudi berri harrigarriak lor ditzakegu. Horri esker, gure lanen garapena aurrerago eraman dezakegu.

Aukera andana hau guztia informatikaren inguruan garatu diren aurrerapenez baliatuz egin daiteke. Hasteko, eskanerrak dauzkagu. Haien bidez irudi analogikoak digital bilaka ditzakegu. Argazki-kamera digitalet gure irudiak euskarri berrian inpresionatzen dituzte. Irudiak lantzeko programa berriek jatorrizko irudia gure gustura bilakatzen laguntzen digute. Eta inprimagailuek irudi digitala kalitate paregabez paperean ezartzea ahalbidetzen digute. Ezin ahaztuko ditugu web-orriak, zeinetan irudi digitalak oinarritzekoak bilakatu diren.

Proiektu honetan proposatzen dugun bideo-serieak irudi digitala erabiltzeko modu sortzaile morderoa proposatzen ditu. Dela argazki-kamera digitalet, dela eskanerrez, bideo-serieak argazki digital harrigarriak egin ahal izateko ezagutza eta inspirazioa eskaintzen ditu, bai gure argazki-bildumarako, bai ikuskizun kultural zein artistikoa garatzeko, bai diseinu grafikoetan erabiltzeko eta baita web-orrietan kokatzeko ere.

Irakasleek eta ikasleek irudi digitalaren abaguneak aurkituko dituzte argazki-kamera digitala modu egokian erabiltzen ikasten duten bitartean. Hori guztia hizkuntza erraza dela medio eta urratsez urrats erakutsitako adibide ugari duela medio. Tartean, hamaika aholku eta amarru interesgarri.

Bideo-bilduma honetan ez dugu hitz egingo argazki-kamerez, programez edo ekai zehatzez; gure xedea hezkuntza-munduan emaitza profesionalak lortzeko jarraitu behar diren prozesuak eta kontuan izan behar diren arauak sakon aztertzea da. Argazkilaritza digitala lurralde berria da, eta irakaslea eta ikasleak, esploradoreak. Har dezagun, bada, gaia, abentura gisa.

Nori zuzendua dago?

ARGAZKILARITZA DIGITALAREN TEORIA ETA PRAKTIKA DVD bilduma, kapitulu bakoitzaren gida didaktikoan azaltzen den legez, hainbat atal bereizitan antolatutako hogeita hamar minutu inguruko iraupena duten hamaika DVDk osatzen du.

Arte-batxilergoan diharduen ikasleriari begira egina dago. Bideo-bildumaren xedea argazki-kamera digitalak nola funtzionatzen duen eta nola erabil daitekeen azaltzea da. Horrez gain, ekipo digitala osatzen duten elementu guztiak banan-banan aztertzen dira (eskanerra, ordenagailua, argazkia ukitzeko softwarea, inprimagailua eta web-orriak). Baina, ororen gainetik, bilduma ikus-hezkuntzaren arloan du berezko lekua; eta, haren xedea, bizitza egokitu zaigun garaian irudiak duen garrantziaz oharturik, ikus-adierazpenerako bitarteko berrien berri ematea da.

Ikus-entzunezkoen mintzaira etengabe garatzen ari bada ere, hemen aurkezten diren ezagutzak oinarritzkoak dira. Teknika ezagutzeak eta makineria menderatzeak ikasleri sentimenduak nahiz iritziak irudi bidez adieraztea ahalbidetuko dio.

BILDUMAREN HELBURU OROKORRAK

ARGAZKILARITZA DIGITALAREN TEORIA ETA PRAKTIKA bideo-bildumaren helburu orokorra, ikaste-irakaste prozesua dela medio, ikasleengan hemen aipatzen diren ahalmenak garatzea da.

- Teknologia digitala erabiltzen ikastea.
- Argazki-kamera digitalak erabiltzen ikastea.
- Sorkuntzaren bitartez adierazten eta komunikatzen ikastea.
- Irudiaren munduko lengoaia propioa ulertzea.
- Azken orduko joera artistikoak ezagutzea.
- Ikus-entzunezkoak sortzeko prozedura berriak ezagutzea.

Kapituluen egitura

DVD-bildumako kapituluak hiru atal nagusitan banatuak daude:

- 1/ **SARRERA** aurkezleak egiten duen sarreratxoa izango litzateke. Haren helburu nagusia irakasleri eta ikasleei, ondoren ikusiko dutenaren aurrerapen laburra ematea da, bideoaren mamiari lasaiago hel diezaioten.
- 2/ **EDUKIEN GARAPENA** atalean, kapituluaren gaiaren eduki eta irakaspen nagusiak garatzen dira. Hainbat saio bereizitan banatzen da. Banaketa horren berri kapituluaren gida didaktikoan ematen da. Bertan erakusten diren gaiak modu argi eta zehatzean aurkezten dira, erraz ulertzeko moduko adibide mordoak lagunduta.
- 3/ **EKINTZA PRAKTIKOEN LANTEGIA**; aurreko ataletan esandakoa berrikustea da, nagusiki, atal honen xedea. Berrikustea ariketa praktikoak gauzatuz egiten da. Aldi berean, ikastetxean egiteko proposatzen diren lan praktikoei ekiteko pizgarri izan nahi du, irakasle eta ikasleei gauza harrigarriak eta interesgarriak lor daitezkeela erakutsiz.

Noiz eta nola erabiliko dugu?

ARGAZKILARITZA DIGITLAREN TEORIA ETA PRAKTIKA bilduma osatzen duten DVDak ordenaturik daude ordena horretan lantzeko. Modu horri baiteritzogu onena haiek erabiltzeko.

Klasean errazago erabili ahal izateko, DVD bakoitza ataltxo eta azpiataltxo zehaztutan banatua dago. Hori horrela egitea pentsatu da ikasleek kontzeptuez argiago eta zuzenago jabe daitezen. Ariketa bakoitza hitzez eta irudiz adierazia dago, ez erantzun zehatz bat emateko (ez da gure helburua kontzeptuak buruz ikaslaraztea), baizik eta, ikasleari teknika ezartzeko moduak iradokitzeko. Irakaslea ikasleekin batera dagoela ikustea komeni da; horrela, ikasleen zalantzak argituko dituen norbait bertan eta gertu izango da. Gainera, kapituluaren gida didaktikoan, zehatz-mehatz adierazten da nola eta noiz erabili behar den.

DVDarekin batera irakasleak honako hau jasoko du:

- Kapituluaren **gida didaktikoa**. Bertan, ikus-entzunezkoan bereizi diren atalak lantzeko hainbat proposamen egiten dira. Atal horiek DVD-irakurgailua martxan jarri eta pantailan agertuko dira menu nagusia osatzen dute.

- **Hiztegi tekniko bat**. Bertan, argazkilaritza digitalean erabiltzen diren oinarritzko hitzen esanahia adierazten da. Hiztegiaren bidez, gaurko komunikabideetan, mundu digitalarekin zerikusia duten artikuluetan, behin eta berriro agertzen diren hainbat hitzen esanahia ezagutzuz, hobeto ulertu ahal izango dituzte.

- **Web-orrialdeen zerrenda bat**, non argazkilaritza digitalean erabiltzen diren tresna eta osagarrien fabrikatzaileen helbideak eta argazkilaritza eta irudi digitalaren munduan izan diren azken aurrerapenen azalpenak eman dezaketenenak ematen diren.

Material osagarriak

Azalpenen jarraipena errazteko, komeni da ikasleek argazki-kamera digitalak klasera ekartzeko eskatzea. Argazki-kamera horiek berdinak ez direnez izango, batzuen eta besteen ezaugarriak alderatuko ditugu, argazkilaritza digitalaren ezagupena osatzeko.

Lan-plataforma oso bat izatea ere komeni da. Hau da, argazki-kamera digitalaz gain, ordenagailua, irudiak ukitzeko softwarea, eskanerra, inprimagailua eta multimedia-proiektorea, ikasleak ikasitakoa praktikan jar dezan.